



«Nahiago dut errukia sakrifizioak baino» (Mt 9,13)

Erruki-egintzak jubileu bidean

FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA
2016ko GARIZUMARAKO

1 **Maria, ebanjelizatua delako ebanjelioa zabaltzen duen Elizaren ikono**

Jubileua deitzeko buldan honako gonbidapena egin nuen: «Jubileu Urte honetako Garizuma izan dadila indar handiagoz bizitua, Jainkoaren errukia ospatu eta bizitzeko une berezi bezala» (*Misericordiae vultus*, 17). Jainkoaren Hitza entzuteko eta «24 ordu Jaunarentzat» izeneko ekimenean parte hartzeko gonbidapenarekin, zera azpimarratu nahi izan nuen: Hitza –bereziki profeta-hitza– otoitz eginez entzuteak duen nagusitasuna. Jainkoaren errukia, egiaz, munduari egiten zaion iragarpena da: baina, iragarpen hori lehenengo pertsonan bizitzera deitua dago kristau bakoitza. Horregatik bidaliko ditut Garizumaldian Errukiaren Misiolariak, Jainkoaren gertutasunaren eta barkamenaren ezaugarri zehatz izan daitezten guztiontzat.

Mariak, Gabriel goiaingeruak emandako Berri Ona bereganatu ondoren, era profetikoan goraipatu zuen Magnificat kantikarekin Jainkoak bera aukeratzean izan zuen errukia. Honela, Joserekin hitzemanen zegoen Nazaretoko Birjina, ebanjelioa zabaltzen duen Elizaren erabateko ikono gertatzen da, bere birjina-erraiak emankor bilakatu zituen Espiritu Santuaren egitez ebanjelizatua izan zelako eta delako. Profeten tradizioan, etimologiari dagokionean, errukia era estuan lotua dago ama-erraiarekin (rahanim) eta ezkonlagunen eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean izaten den ontasun eskuzabal, leial, eta errukiberarekin (hesed).

2 Jainkoak gizakiekin duen ituna: errukizko historia

Jainkozko errukiaren misterioa Jainkoaren eta Israel herriaren arteko itunaren historian zehar agertzen zaigu. Jainkoak, izan ere, beti agertzen du bere burua errukitsu, egoera bakoitzean bere herriarengan erraietatik darion samurtasun eta gupida isurtzeko prest, bereziki unerik lazgarrietasan, leialtasun ezak Hitzarmenaren lokarria hausten duenean eta ituna justizian eta egian era egonkorragoan berrestea beharrezkoa gertatzen denean. Egiazko maitasun drama baten aurrean gertatzen gara, Jainkoa delarik aita eta senar salduaren papera egiten duena eta Israel leiala ez den seme edo alaba nahiz emaztearen paperean ari dena. Familiako irudiak dira, hain zuzen –Oseasen kasua, esaterako (ik. *Os* 1-2)–, Jainkoak bere herriarekin zenbateraino bat egin nahi duen adierazten dutenak.

Gizon egindakok Semearengan du bere gailurra maitasun drama honek. Haren bidez isurtzen du Jainkoak bere erruki neurrigabea, Semea «gizon egindako Errukia» bihurtzeraino (ik. *Misericordiae vultus*, 8). Izan ere, gizon denez, Jesus Nazaretarra Israelgo seme da, horrek dituen ondorio guztiekin. Eta Shema delakoak judu orori eskatzen dion Jainkoari entzute arretatsua Seme horrengan gauzatzen da gainera; eskakizun hori Jainkoak Israelekin duen itunaren muina da gaur ere: «Entzun Israel: Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da! Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz» (*Dt*, 4-5). Bere Emaztearen maitasuna bereganatzeagatik edozer gauza egiten duen Senarra da Jainkoaren Semea, emaztearekin baldintzarik gabeko maitasunez

bat egina dagoena, maitasun hori betiereko ezteietan ageriko bihurtzen delarik.

Hori da Apostoluen kerygmaren muina, bertan Jainkoaren errukiak toki nagusia eta oinarrizkoa duelarik. «Jesu Kristo hil eta piztuarengan agertutako Jainkoaren maitasun salbagarriak duen edertasuna» (*Evangelii gaudium* aholku hitz ap., 36) da «katekesian zehar, berriz ere, bere aro eta une guztietan, era batera edo bestera, beti iragarri behar den» lehen iragarpena (ibid. 164). Errukiak, orduan, «Jainkoak bekatariekin duen jarrera adierazten du, gero aztertzeke, bihotz-berritzeke eta sinesteko aukera emanez» (*Misericordiae vultus*, 21), honela Berarekiko harremana berrezartzen duelarik. Eta, Jesus gurutziltzatuaren bidez, Jainkoak bekataria bereganatu nahi du, baita muturreko urrutiratzetik ere, galdu eta Berarengandik urrundu zen tokian hain zuzen. Eta hau, azkenik, Emaztearen bihotz gogortua samurtzeko itzaropenez egiten du.

3 Erruki-egintzak

Jainkoaren errukiak giza-bihotza aldatzen du maitasun leialaren bizipena eginaraziz, eta errukirako gai bihurtuz. Mirari bat da beti ere, jainkozko errukia gutako bakoitzaren bizitzan islatzea, hurkoa maitatzera bultzatuz eta Elizaren tradizioak gorputzeko nahiz espirituzko erruki-egintzak deitzen dituenak bizitzera eraginez. Erruki-egintzek oroitarazten digute gure fedea ezaugarri zehatz eta ohikoetan agertzen dela, gorputzez eta espirituz hurkoa maitatzen laguntzen baitigute eta horien arabera epaituak izango baikara: elikatu, bi-

sitatu, kontsolatu eta hezi. Horregatik adierazi nuen gogo bizia dudala «Jubileu Urte honetan kristau-herriak gorputzeko nahiz espirituzko erruki-egintzak hausnar ditzan. Pobreziaren dramaren aurrean, sarritan lokartua dagoen gure kontzientzia esnarazteko modua izango da, eta Ebanjelioaren bihotzean oraindik gehiago murgiltzeko, Jainkoaren errukiak toki berezia ematen baitie bertan behartsuei» (ibid., 15). Behartsuarengan, izan ere, Kristoren haragia «begi-bistako egiten da berriro, martirien gorputz-itxuran, edota zauritua, zigorkatua, goseak dagoen, iheslariaren... gorputz-itxuran bera ezagut dezagun, ukitu eta kontuz zaindu dezagun» (ibid.). Bildots Errugabearen sufrimendua historian luzatzea misterio harrigarri eta eskandalagarri gertatzen zaigu eta doako maitasunez sustan dagoen sasi, beraren aurrean, Moisesek bezala, oinetakoak kendu besterik egin ezin dugularik (ik. *Ir* 3,5); are gehiago pobrea, fedeagatik sufritzen duen eta Kristogan gure anaia edo arreba dena baldin bada.

Herioa bezain gogorra den maitasun honen aurrean (ik. *Kt*, 8,6), bere burua holakotzat aitortzen ez duena da behartsu miserableena. Aberats dela uste du, baina pobreetan pobreena da egiaz. Bekatuaren esklabo delako gertatzen da hori, bekatuak daramalarik aberastasuna eta boterea Jainkoa eta besteak zerbitzatzeko erabili beharrean bere baitako uste sendo hau ezkutatzeko erabiltzera: ez dela eskale behartsu bat besterik. Eta, zenbat eta handiagoa izan bere eskura duen boterea eta aberastasuna, hainbat handiagoa izan daiteke itsutze engainagarri hau. Bere etxeko atean eskean dagoen Lazaro ez ikusteraino itsutzen du (ik. *Lk* 16,20-21), Lazaro hori delarik behartsuengan gure bihotz-berritzea eskatzen duen Kristoren irudia. Lazaro da Jainkoak guri eskaintzen digun, eta guk behar bada ikusten ez dugun, bihotz-berritzeko

aukera. Eta itsutze horrek berekin du ahalguztidun ustearen eromen harroa, era makurrean entzunarazten duelarik deabruaren «Jainkoa bezalakoak bihurtuko zarete» (*Has 3,5*) hura, bekatu ororen erroa dena. Eromen horrek giza- eta politika-ereduak ere izan ditzake, XX. mendeko totalitarismoek agertu duten bezala eta gaur egun ere pentsamolde bakarreko ideologiek eta teknozientziak azaltzen duten bezala, Jainkoa garrantzigabe bihurtu nahi baitute, eta gizakia erabili daitekeen masa batera murriztea. Egundakozko egiturek ere azal dezakete eromen hori, diruaren gurtzan oinarrituriko garapen-eredu faltsu batera lotuak baitaude; horren ondorioz pertsonak eta gizarte aberatsenak axolagabe bihurtzen dira pobreen zoriarekiko, eta ateak ixten dizkiete, begiratzeari ere uko egiteraino.

Jubileu Urte honetako Garizuma, beraz, garai egokia da guztiontzat Hitza entzuteari eta erruki-egintzei esker gure alienazio existentzialetik behingoz ateratzeko. Gorputzeko erruki-egintzen bidez Kristoren haragia ukitzen dugu elikatuak, jantziak, ostatatuak, bisitatuak izateko beharra duten anai-arrebengan; espirituzko erruki-egintzek, aldiz, gure bekatari-izaerari eragiten diote: kontseilu eman, erakutsi, barkatu, argirika egin, otoitz egin. Beraz, ez dira inoiz ere banatu behar gorputzekoak espirituzkoetatik. Beraz, dohakabearengan Jesus gurutziltzatuaren haragia ukituz, bera ere eskale behartsu bat dela konturatu ahal izatearen dohaina jasoko du bekatariak. Bide horretatik Magnificat kantikak aipatzen dituen «buru-harroek», «handikiek» eta «abertsek» ere, beraiengatik gurutziltzatua, hila eta piztua izan zen Kristok merezi gabe maite dituela konturatzeko aukera dute. Maitasun honetan bakarrik aurkitzen da zorion eta maitasun amaigabearen egarriaren erantzuna, gizakiak –bere burua engainatuz– ja-

kintzaren, boterearen eta edukitzearen sasi-jainkoetan ase-
bete dezakeela uste badu ere. Baina, bada beste arrisku bat
ere: bihotzeko atea behartsuarengan jotzen dioten Kristori
gero eta gehiago atea itxiz buru-harroek, aberatsek eta handi-
kiek bere burua kondena dezakete bakardadearen amildegian
eroriz, infernuan eroriz. Hona hemen, bada, berriro ere haien-
tzat eta guretzat Abrahamen hitz zaugarriak: «Hor dituzte
Moises eta profetak: entzun diezaietela» (*Lk 16,29*). Hitza go-
goz entzuteak hobeki prestatuko bekatuaren eta heriotzaren
gain Senar piztuak izan duen betirako garaipena ospatzeko,
Bera etorri zain dagoen Emazte hitz emana garbitzera dato-
rren Senarrarena.

Ez dezagun alferrik gal bihotz-berritzeko egokia dugun
Garizuma. Ama Birjinaren bitartez eskatzen dugu, bera izan
baitzen doan jasotako jainkozko errukiaren handitasunaren
aurrean bere apaltasuna aitortu zuena (ik. *Lk 1,48*), Jaunaren
mirabe apal bere burua agertuz (ik. *Lk 1,38*).

Vatikano, 2015eko urriaren 4a
Asisko san Frantziskoren jaia

Franciscus